


# A bisfenola



## Laburpena

A bisfenola (BPA) plastikoak eta erretxinak sortzeko erabiltzen den substantzia kimikoa da.

BPA polikarbonatoan erabiltzen da; hain zuzen, elikagaietarako ontziak, besteak beste, botilak, platerak eta kizarak egiteko erabiltzen den errendimendu handiko plastiko zurrun

eta gardenean.

Horrez gain, elikagai eta edarietarako ontzietako (latak, adibidez) estalki babesgarriak egiteko erabiltzen diren epoxi erretxinetan ere aurki daiteke.

BPA kantitate txikiek ontzi horietan gordetako elikagai eta edarietara migra dezakete, batez ere, ez badira behar bezala erabiltzen.

Bestalde, elikadurarekin zerikusirik ez duten produktuak egiteko ere erabiltzen da, besteak beste: epoxi-oinarria duten pinturak, gailu medikoak, azalaren estaldurak, inprimatze-tintak (erosketa ticketetan) eta garrak atzeratzeko materialak.

A bisfenola munduko produkzio-mailarik handienetakoa duen substantzia bat da (2015ean urteko 5 milioi tona baino gehiago zeuden aurreikusita).

1. ¿Zer da?
2. Esposizioa
3. Giza osasuan duen eragina
4. Lege-mugak
5. Erreferentziak
6. Esteka interesgarriak

## 1. Zer da?

A bisfenola (BPA) plastikoak eta erretxinak sortzeko erabiltzen den substantzia kimikoa da.

BPA polikarbonatoan erabiltzen da; hain zuzen, elikagaietarako ontziak, besteak beste, botilak, platerak eta kizarak egiteko erabiltzen den errendimendu handiko plastiko zurrun eta gardenean.

Horrez gain, elikagai eta edarietarako ontzietako (latak, adibidez) estalki babesgarriak egiteko erabiltzen diren epoxi erretxinetan ere aurki daiteke.

**BPA kantitate txikiak ontzi horietan gordetako elikagai eta edarietara migra dezakete, batez ere, ez badira behar bezala erabiltzen.**

Bestalde, elikadurarekin zerikusirik ez duten produktuak egiteko ere erabiltzen da, besteak beste: epoxi-oinarria duten pinturak, gailu medikoak, azalaren estaldurak, inprimatze-tintak (erosketa ticketetan) eta garrak atzeratzeko materialak.

## 2. Esposizioa

EFSAren arabera, esposizio konbinatua, hau da, elikagaien bitarteko esposizioaren eta elikadurarekin zerikusirik ez duen esposizioaren konbinazioa (hautsa, kosmetikoak eta paper termikoa), elikagaien BPA maila-segurua (TDI) dezente azpitik dago - 4 mikrogramo gorputz-pisuaren kilo/egun-.

Elikagaien bitarteko esposiziorako eta iturrien esposizio konbinaturako ("esposizio erantsia") zenbatespenik altuenak TDI baino hiru eta bost aldiz baxuagoak dira.

Dietaren bitarteko BPA ahorakin zenbatetsia handiagoa izan zen 6 eta 36 hilabete bitarteko haurren artean (0,875 µg/gorputz-pisuaren kilo/egun).

Adin emankorreko emakumeen elikagaien bitarteko esposizioa eta adin horretako gizonen esposizioa antzekoak izan ziren (0,338 µg/gorputz-pisuaren kilo/egun).

Esposizio erantsirik (elikagaien bitartekoa eta beste esposizio-iturri batzuetakoa konbinatua) handiena nerabeena izan zen (1.499 µg /gorputz-pisuaren kilo/egun).

### 2020an zer gertatuko da?

2016ko abenduan, Europako Batzordeak paper termikoan BPAREN erabilera mugatzea erabaki zuen. Debeku hori 2020an sartuko da indarrean, eta paper termikoaren fabrikatzaileei, inportatzaileei eta erabiltzaileei denbora nahikoa emango die material hori erabiltzeari utzi eta alternatiba bat bilatzeko.

#### Elikagaiak

Elikagai eta edarietarako ontzietako estalki babesgarrien migrazioa dela eta



#### Ingurumena

Hautsa, kosmetikoak ,...



#### Edariak

Migrazioa edo kutsadura dela eta...



## 3. Giza osasuenan duen eragina

Esperimentaziorako animalietan egindako azterketen arabera, litekeena da BPAREN dosi altuek (Eguneko Ahorakin Toleragarria edo EAT baino ehunka aldiz handiagoek) eragin negatiboak izatea giltzurrunetan eta gibelean. Horrez gain, BPAk beste organo batzuetan dituen eraginak ere deskribatu dira, baina ez dago argi zein den haren “*ekintza-mekanismoa*”.

Erreproduzio-sisteman, nerbio-sisteman eta sistema immunologiko eta kardiobaskularrean izan daitezkeen ondorioak eta minbiziaren garapena gaur egun ez dira “gertagarritzat” jotzen, baina edonola ere, EZIN DIRA baztertu (EFSAREN 2015eko azken ebaluazioari jarraikiz).

EFSA

**Txostena: BPAREN presentzia elikagaietan**

**EFSAren adituek ondorioztatu zuten gaur egun BPA EZ dela inongo adin-tartetako kontsumitzaileen osasunerako arrisku bat (barne hartuta jaio gabeak, haurtxoak eta nerabeak).**

## 4. Lege-mugak

BPA baimenduta dago elikagaietan kontaktuan egongo diren material plastikoetan (2018ko otsailaren 12ko 2018/213 Erregelamendua [EB] (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX%3A32011L0008>)).

Migrazio espezifikoaren **muga 0,05 mg-koa da elikagai kg bakoitzeko**, eta debekatuta dago bularreko haurrentzako plastikozko biberoiak fabrikatzeko erabiltzea 2011ko ekainetik aurrera (321/2011 Erregelamendua [EB]).

## 5. Erreferentziak

BPARI buruzko ELIKAKO albisteak (<https://www.elika.eus/eu/bilatu/?selika=bisfenola>)

## 6. Esteka interesgarriak

— Esteka interesgarriak

- Scientific Opinion on the risks to public health related to the presence of bisphenol A (BPA) in foodstuffs (<http://www.efsa.europa.eu/en/efsajournal/pub/3978>)
- Reglamento (UE) 2018/213 de la Comisión, de 12 de febrero de 2018 ([http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=uriserv:OJ.L\\_.2018.041.01.0006.01.SPA&toc=OJ:L:2018:041:TOC](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=uriserv:OJ.L_.2018.041.01.0006.01.SPA&toc=OJ:L:2018:041:TOC)), sobre el uso de bisfenol A en los barnices y revestimientos destinados a entrar en contacto con los alimentos y por el que se modifica el Reglamento (UE) N° 10/2011 por lo que respecta al uso de dicha sustancia en materiales plásticos en contacto con los alimentos.
- Regulation EU 10/2011 on plastic materials and food contact materials (<https://eur-lex.europa.eu/eli/reg/2011/10/oj>)
- Directive 2011/8/EU restricting the use of bisphenol A in plastic infant feeding bottles (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX%3A32011L0008>)